

Pit-Bull baten jabea atxilotu dute erasotzeko agintzeagatik

Zauri larriak eragin zizkion Barakaldoko bizilagun bati


Erredakzioa/ Bilbo

Joan den larunbat goizaldean Barakaldoko taberna baten atarian bi gizon borrokan ari zirelarik, bietako batek bere Pit-Bull arrazako txakurrari eraso egiteko

agindua eman zion. Agindua bete, eta txakurrak zauri larriak eragin zizkion lepoan eta aurpegiaren eskuinaldean. Gurutzetako ospitalera eraman eta ebakuntza egin behar izan zioten erasotuari. Ertzaintzak atxilotu egin du txakurraren jabea.

BARAKALDOKO 21 urteko E.L.L.S. gaztea atxilotu zuen Ertzaintzak astelehenean, beste gizon batekin borrokan zebilela, Pit-Bull arrazako txakurraren bila joan eta eraso egiteko agintzeagatik. Txakurrak agindua bete eta zauri larriak eragin zizkion aurpegian eta lepo inguruan gizonari. Atxilotuari ahalegin graduak hilketa saioa egotzi diote.

Joan den larunbat goizaldeko 00:30ak aldera hasi zen istilua Barakaldoko Murrieta inguruko taberna baten kanpalkaldean. Tabernatik gertu bi gizonen arteko eztabaida hasi zen, eta borrokan hasi ziren segidan. Istiluak jarraitzen zuen bitartean, bi gizonetako bat, 21 urteko E.L.L.S., ondoan zegoen zuhaitz batera gerturatu zen eta han loturik zuen Pit-Bull arrazako txakurra askatu zuen. Ondoren, txakurra xaxatu eta beste gizonari erasotzeko agindua eman zion jabeak. Erasotzak ezin izan zuen txakurraren eraso saihestu, eta zauri garrantzitsuak jasan zituen aurpegian eta lepoan. Gertatzen ari zena ikustean laguntzera joan ziren lekukoek eta tabernako zaindariak lortu



ELVIRA URQUIJO / EFE

Argazkian agertzen den txakurraren arraza berekoa da Barakaldoko gizonari eraso egin zion txakurra, Pit-Bull arrazakoa.

zuten txakurra gizonaren-gandik aldentzea. 41 urteko A.L.P. Gurutzetako ospitalera eraman zuten, eta lepoan eta aurpegiaren eskuinaldean zituen zauriak larriak zirela eta, ebakuntza egin behar izan zioten bertan.

Gertatutakoaren berri izan, eta lekukoek eta biktimak jarritako salaketen ondorioz, txakurraren jabea atxilotu zuen astelehenean

Ertzaintzak. Txakurra, berriz, herriko txakurtegira eraman dute, eta han edukiko dute agintariekin erabakiren bat hartzen duten bitartean.

Baby piromanoa izengoitiaz da ezaguna txakurraren jabea, eta istilu eta borroka ugaritan hartu du parte; gainera, askotan atxilotu dute lapurretak, kalteak eta suteak eragiteagatik.

'Itsas Arrantza', uretako usadio bitxiaren bilgune

Josu Erkorekaren testuak eta Gorka Salmeronen argazkiak biltzen ditu liburuak

Ainhua Gerra/ Donostia

EUSKAL HERRIKO antropologia, ohiturak eta kulturaren adierazle den Bertan bildumako 12. alea aurkeztu da Donostiako Untzi Museoa. Gipuzkoako Foru Aldundia da Josu Erkorekaren testuak eta Gorka Salmeronen argazkiak biltzen dituen *Itsas Arrantza* liburuaren arduraduna.

Josu Erkoreka egileak azaldu duenez, testuak ez du egungo euskal arrantzaleen lanaren deskripzio etnografikoa egiten, ezta azterketa historiko sistematikoa ere. «Askotan arrantzari buruzko azterketa etnografiko eta historikoei zenbait ezaugarri eta bitxitasun nabarmentzen dituzte. Baina ikerketa askotan bitxitasun horiek atzean dituzten arrazoiak ez dira aipatzen, eta beti daude arrazoi sakonak». Egilearen helburua izan da lan hone-

tan ikuspuntu biak, historikoa eta antropologikoa hartu eta sintesi lan batean biltzea. Euskal arrantzaleak iraganean bere bizitza itsasotik antolatzeak nolako erronkak izan dituen aztertu eta erronka horiei zein erantzun eman dien aztertu du egileak.

Gorka Salmeron argazkilarik legazpiarrak urtebete eman du liburuko argazkiak ateratzen. Berarentzako oso lan interesgarria izan da, ezagutzen ez zuen ingurunean sartu eta barrutik ezagutzeko aukera izan baitu. Argazkiak egiteko orduan, itsasoan lan egitearen gogortasunak harritu du Salmeron. Bere argazkiekin batera, orain arte argitaratu gabeko argazki zaharrak ere ikus daitezke.

Hizkuntz tratamenduari dagokionean, testu nagusia euskaraz da, eta atzekaldean beste hiru hizkuntzatara itzuli dute.

Jabeen betebeharrak arautuko ditu Jaurilaritzak

Erredakzioa/ Gasteiz

Eusko Jaurilaritzak ez du nahi debekatu Euskal Autonomia Erkidegoan dauden arraza erasotzaileetako txakurren haziera, eta, halaber, ez da emeak antzutearen aldekoa. EAEko Animalien Babeserako Legeak hori egiteko gaitasuna ematen badio ere, arrazak desagerraraztea baino lehen, mota honetako animaliak dituzten jabeek bete behar dituzten arauak ezartzea nahiago du

Jaurilaritzak. «Animalien artean, gizakiarentzat arriskuak izan daitezkeen asko daude, lehoiak eta sugeak, esaterako. Baina horregatik gizakiak ez ditu arraza horiek deuseztatu behar. Hobe da txakur erasotzaileak eduki nahi dituztenentzako arauak jartzea», esan zuen Juan Ramon Puy-k, Nekazaritza Saileko ardura-dunak.

Nekazaritza Saila txakur erasotzaileak dituztenek bete be-

harreko segurtasun neurriak aztertzen ari da jada. Txakurra aske ibiltzeko zonalde bat finkatzea da lantzen ari diren arauetako bat, txakur hauek entrenamendua behar baitute egunero. Indarrean jarri aurretik txakurrak erosi dituztenek ere bete beharko dute baldintza hau, indarrean jartzen bada.

1993an onartutako EAEko Animalien Babeserako legearen zenbait alderdi berriak egin dira,

baina txakur erasotzaileen gainean ez da inolako aldaketarik egin. EAEko txakur hauen erasoengatik inolako salaketarik ez dela egon esan du Puy-k, eta horregatik ez dela neurririk hartu. Txakurren aurkako salaketak, orohar, sortzen duten zikinagatik eta zarategatik izan direla gaineratu du. Autonomia Erkidego bakoitzean arau desberdinak egotearen aurka azaldu da Jaurilaritza.